

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

382/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea behar diren zenbatekoen esleipena Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 27ko 17/2025 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren deialdia ebazteko

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2026-2027 deialdia Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak arautzen du.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 27ko 17/2025 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta 2026-2027rako deialdia.

17/2025 Foru Dekretuaren laugarren xedapenean ezartzen denez, deialdi honetarako onetsitako dirulaguntza konpromisoak 39.975.610,00 euro dira guztira, Arabako Foru Aldundiaren 2026. ekitaldirako aurrekontuan indarrean dagoen "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren kontura finantzatzeko dira. Hona hemen 2026. eta 2027. urtetarako xehakapena:

- 19.936.805,00 euro 2026ko urteko kuotan.
- 20.036.805,00 euro 2027ko urteko kuotan.

Gainera, 17/2025 Foru Dekretuaren bosgarren xedapenean ezarritakoaren arabera, obren ordainsari teknikoak finantzatzeko laguntzetarako, "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidan, hasiera batean 300.000,00 euro gordeko dira:

- 150.000,00 euro 2026ko urteko kuotan.
- 150.000,00 euro 2027ko urteko kuotan.

Hala ere, 17/2025 Foru Dekretuaren zazpigarren apartatuan honako hau ezartzen da: aurreko xedapen zatian adierazitako kopuruak gorabehera, ekitaldi bakoitzerako urteko kredituaren benetako zenbatekoa 9/2017 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera xedatutako horniduraren mende egongo da.

Arabako Lurralde Historikoaren 2026. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauan, deialdi hau finantzatzeko aurrekontu zenbatekoa, 5. artikuluan 1. apartatuan ezarritako kalkulu metodologiatik eratorria, "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren honako urteko kuota hauetan zehazten da:

2026-2027 ALDIRAKO OZFP DEIALDIA FINANTZATZEKO AURREKONTU PARTIDA			
AURREKONTU ZENBATEKOAK	2026	2027	GUZTIRA
10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27	21.585.592,00	21.772.386,00	43.357.978,00

Hasieran onartutako zenbatekoak ez datoz bat horiekin, eta, beraz, dagozkion doikuntzak egin behar dira deialdia finantzatzen duten urteko kuoten kontsignazioetan.

Doikuntza horien zenbatekoak zehazteko, 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitakoa hartu behar da kontuan.

Ondorioz, "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren urteko kuoten beharren banaketa honako hau da:

KONTZEPTUAK	2026	2027	GUZTIRA
2027ko OZFP laguntza teknikoa	0,00	86.794,00	86.794,00
2027ko larrialdi obrak (partida berri bat sortzea "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidari lotuta)	0,00	200.000,00	200.000,00
2026-27ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko ordainsariak	100.000,00	150.000,00	250.000,00
2026-27ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko obrak	21.485.592,00	21.335.592,00	42.821.184,00
Guztira	21.585.592,00	21.772.386,00	43.357.978,00

Horrez gain, Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak egindako txostena ikusita, 2026-2027 deialdi hau finantzatzeko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren aurreko deialdietan zegoen aurrekontu soberakinetik 385.376,70 euro bideratzea erabaki da. Beraz, deialdi horretan obrak finantzatzeko aurreikusitako azken zenbatekoa honako hau da:

OBRETARAKO URTEKO KUOTEN ZENBATEKOA	2026	2027	GUZTIRA
2026-27ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko obrak	21.485.592,00	21.335.592,00	42.821.184,00
Aurreko deialdietako soberakinak	385.376,70	0	385.376,70
Urteko kuotak	21.870.968,70	21.335.592,00	43.206.560,70

Eta, ordainsarietarako:

ORDAINSARIETARAKO URTEKO KUOTEN ZENBATEKOA	2026	2027	GUZTIRA
2026-27ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko ordainsariak	100.000,00	150.000,00	250.000,00

Obretarako dirulaguntzetarako urteko kuoten zenbatekoa lehen adierazitakoa denez eta deialdi hau onesten duen 17/2025 Foru Dekretuaren laugarren apartatuan hasiera batean aurreikusitako zuzkidurarekin bat ez datorrenez, urteko kuoten doikuntza hauek egin behar dira:

OBRETARAKO URTEKO KUOTEN ZENBATEKOA	2026	2027	GUZTIRA
2026-2027 OZFPko obrak finantzatzeko proposatutako urteko kuotak	21.870.968,70	21.335.592,00	43.206.560,70
Hasierako kontsignazioak	19.936.805,00	20.036.805,00	39.973.610,00
Kontsignazioaren gehikuntza	1.934.163,70	1.298.787,00	3.232.950,70

Ordainsariei dagokienez, honako doikuntza hau egin behar da:

ORDAINSARIETARAKO URTEKO KUOTEN ZENBATEKOA	2026	2027	GUZTIRA
2026-2027 OZFPko obrak finantzatzeko proposatutako urteko kuotak	100.000,00	150.000,00	250.000,00
Hasierako kontsignazioak	150.000,00	150.000,00	300.000,00
Ordainsarietarako erreserben doikuntza	- 50.000,00	—	- 50.000,00

Horrenbestez, nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Jarraian zerrendatzen diren kopuruak 2026ko ordainketa kredituaren kontura eta 2027ko konpromiso kredituaren kontura behin betiko gisa finkatzea, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko Aurrekontuaren "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren kontura

POSIZIOA	URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1	2026	2026-27ko Foru Planaren deialdia (2026. urtea)	21.870.968,70
2	2027	2026-27ko Foru Planaren deialdia (2027. urtea)	21.335.592,00
3	2026	2026-27ko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2026. urtea)	100.000,00
4	2027	2026-27ko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2027. urtea)	150.000,00
Guztira			43.456.560,70

Bigarrena: Jarraian zerrendatzen diren kopuruak 2026ko ordainketa kredituaren kontura eta 2027ko konpromiso kredituaren kontura kontsignatzea, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko Aurrekontuaren "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren kontura:

POSIZIOA	URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1	2026	2026-27ko Foru Planaren deialdia (2026. urtea)	1.934.163,70
2	2027	2026-27ko Foru Planaren deialdia (2027. urtea)	1.298.787,00

Hirugarrena. Ezeztatzea 50.000,00 euroko kontsignazioa, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko Aurrekontuaren "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren kontura:

POSIZIOA	URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
3	2026	2026-27ko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2026. urtea)	- 50.000,00

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA